

Euskararen dialektalizazioaren hastapenetarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan


Urtzi Reguero Ugarte

0. Aurkezpenaren egitura

- ▶ Erdi Aroko euskararen zenbait ezaugarri
- ▶ Konbergentzia prozesua
- ▶ Dibergentzia, edo nola abiatu zen dialektalizazioa
- ▶ Eremu dialektalak Erdi Aroan
- ▶ Ondorioak

1. *Berri/barri, beltz/baltz* eta *iri/uri*

- ▶ Erdi Aroko hainbat toponimok eta antroponimok *berri/barri, beltz/baltz* eta *uri/iri* elementuak dituzte.
- ▶ Erdi Aroan txandaketa ikus daiteke
- ▶ Banaketa geografiko aski gardena du hasiera–hasieratik
 - *Barri, baltz, uri* mendebalean
 - *Berri, beltz, iri* erdialde–ekialdean



2. $*-a + eC > -aC / -eC$ bilakabidea

- ▶ Bereziki, ergatibo pluralean eta erlatibozko esaldietan ikus dezakegu.
- ▶ Bonapartek ergatiboaren banaketa erabiliz, euskararen eremua bitan banatu zuen:
 - erdialde-mendebalean *-ak*.
 - ekialdean *-ek*.
- ▶ Bilakabide honen lehen lekukotasunak XV. mendekoak

3. $*-a + eC > -aC / -eC$ bilakabidea

- ▶ XV. menderako banaketa garbia:
 - 1468: *çaratearrac galdu ei dabe Marquina-Çuya çeculaco.* (Mendebalean)
 - XV. mendeko gutuna: *Garaçicoec dute gr(aci)a.* (Nafarroan)
 - 1476: *Franzes osteac jaquingo du ura Ondarribian zana.* (Hondarribian?)
 - XV. mendeko gutuna: *ez naiz bildur ezten alla.* (Nafarroan)
 - Kontrasta, Ameskoa eta Lana inguruko erlatibodun toponimoek $-(a)n$




$*a + eC > -aC$

$*a + eC > -eC$

4. Hasperena

- ▶ Hasperenak Erdi Aroan garai historikoetan izandako hedadura baino handiagoa
- ▶ Lekukotasunek erakusten dute hasperenaren galera Nafarroa Garaian hasi zela: Leire, Iruñea, Sakana eta Erdialdeko datuetan ez da arrastorik. Orreaga eta Iratxen bai.
- ▶ Mendebalean: *Olhabeeçahar* (Bizkaia, 1013) *Hurizahar* (Araba, 1025), *Zuhaznabar* (Gipuzko ipar-ekialdea 1025)
- ▶ Iparraldean: *Irigoyhen*, *Echeçahar* (XIV–XV. m.)
- ▶ Desberdintasuna: ipar-ekialdean Grassmann dago, mendebalean ez.

Hasperenak izan zezakeen hedadura XI. mendean



5. *-tza* / *-tz(e)* aldaerak

- ▶ Erdi Aroan maiz lekukotzen den ugaritasun atzizkia: *-tza* (batzuetan *-tzaha*: *Hillarrazaha*)
- ▶ Atzizki honen baliokidea: *-tze* atzizkia aldaera.
- ▶ *-tza* mendebalean nagusi, *-tz(e)* ipar-ekialdeko berrikuntza. Batasun linguistikoa?

5. *-dui / -di / -doi* aldaerak

- ▶ Hirurak atzizki beraren aldaerak; *-di* berriena.
- ▶ Agian, *-doe* aldaera zaharragoa: *puent de Dorrondoe* (1283).
- ▶ Aldaerek banaketa geografiko jakin bat erakusten dute:
 - Bazterreko eremuetan aldaera diptongoduna
 - Erdialdean: *-di*



Koldo Mitxelena Katedraren III.
Biltzarra (2012ko urria)

6. Konbergentzia

- ▶ Erdi Aroa konbergentzia garaia
- ▶ Dialekto zaharrek hizkuntza komuna sortu: Euskara Batu Zaharra
- ▶ Konbergentzia prozesua zerbait konkretua da
 - zatikatuta dagoen hizkuntzak gizarteko gertakarien ondorioz modu naturalean berdintzera egin lezake

7. Dibergentzia

- ▶ Erdi Aroa dibergentzia garaia ere bada
 - Garai honetakoa da dialekto historikoen sorrera
- ▶ Aintzat hartu beharrekoak:
 - Dibergentzian faktore politiko, sozial eta ekonomikoek eragina dute
 - Ez da beti bat-batekoa izaten, prozesu baten ondorio baizik
 - Euskararen dialekto historikoen artean ez dago eten geografikorik

8. Konbergentzia eta Dibergentzia

- ▶ Konbergentzia eta dibergentzia prozesuak ulertzeko: Babel, Garrett, Houser eta Toosarvandani (2009)
- ▶ *Apomorphic taxa* → *clade* → *taxon*

9. Eremu dialektalak Erdi Aroan

- ▶ Datuak urriak izan arren, eremu dialektalak bereiz litezke
- ▶ Ezaugarri zenbait kontuan hartuta, bi eremu dialektal:
 - Mendebala: *barri, baltz, uri*, $*-a + eC > -aC$
 - Ekialdea: *berri, beltz, iri*, $*-a + eC > -eC, -tz(e)$
- ▶ Banaketa dialektal aski zaharra

10. Eremu dialektalak Erdi Aroan

- ▶ Beste hainbat ezaugarri kontuan hartuta, hiru eremu dialektal
 - Erdigune berritzaileak eraginda
- ▶ Esaterako, hasperena eta *-doi/-dui/-di* banaketa
- ▶ Dialekto historikoan agertzen diren hainbat ezaugarri eremu hauekin bat
 - Besteak beste: mendebalean *a+a > ea*, **edutsi*, *egin* erroak.

11. Ondorioak

- ▶ Hasierra–hasieran bi eremu dialektal
- ▶ Erdigune berritzaile baten ondorioz, hiru eremu dialektal bereizten hasi.
- ▶ Dialektalizazioa prozesu bezala ulertu behar da, ez bat–bateko gertakari bezala.
- ▶ Dialektologia diakronikoko lan eta ikerketa berriak beharrezkoak

Eskerrik asko!